



Kaixo, lagunok, ni KAXA BIDAIARIA naiz.

Otsailean hasi nuen nire bidea, Bidegoian-en, eta hainbat astetan zehar festa antolatu duzuen herrietatik pasako naiz, Larraulera heldu arte. Izan ere, aurtan, bertan ospatuko dugu 25. Eskola Txikien Festa.

Eta, arren, biluztu nazazue, bai, biluztu: ireki tapa eta nire barrua ikusiko duzue. 25 urteko soka luzea dakart zuentzat. Zuek emana, zuei eskainia.

Erditze samurra izan zuten nire gurasoek (eskola txikietako irakasleen koordinatzaileak eta gurasoen Koordinakundeak), eta Eskola Txikietan sortu eta hazi naiz, zuek bezalaxe. Eta duela aste batzuk soilik jaio nintzen arren, barruan gorderik dut 25 urtetako altxorra: historia.

Eskerrik asko eman didazuen guztiagatik; zuen hitzek, irudiek eta bizipenek bizia eman didate.

Hemendik 25 urtera elkar ikusiko dugulakoan agurtzen zaituztet, gogora araziz, eskola txikiak bizirik badiraute, herri eta auzo txikiek bizirik iraungo dutela.

Muxu bat guztioi,

